



TOXIKOMANIEI BURUZKO **I**NFORMAZIO **S**ISTEMA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2007

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza
Osasun Saila
Info2-san@ej-gv.es

Nieves Rodríguez Sierra
M. Isabel Izarzugaza

2009ko azaroa

SARRERA

Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) Drogei buruzko Estatuko Planaren barruan jarri zen martxan, 1987an. Informazio-sistema hori, hasiera batean, opiazeoen eta kokainaren kontsumoaren zeharkako adierazleetan oinarritzen zen, baina 1996. urtetik aurrera gainerako substantzia psikoaktiboetara zabaldu zen. 2003. urtean, halaber, beste aldaketa bat jasan zuen eta Treatment Demand Indicator (TDI) izeneko Europako protokolo estandarrarekin bat egin zuen.

Une honetan, SEIT delakoaren adierazleak —beste adierazle batzuekin batera— Drogei buruzko Espainiako Behatokian (OED) sartuta daude, baita Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokian (OEDT) ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osasun Sailaren bitartez, informazio-sistema horretan sartuta dauden adierazleen datuak bildu dira, definitzen joan diren heinean, eta gertatutako aldaketak ere arian-arian txertatu dira. Adierazle horiek Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren barruan sartuta daude.

Hona hemen sartutako aldaketekin erabilitako adierazleak:

TRATAMENDU ADIERAZLEAren bidez, honako datu hau jakiten da: urte jakin batean, substantzia psikoaktiboen abusua edo mendekotasuna gainditzeko tratamenduari ekiten dioten pertsonen kopurua, toxikomaniak tratatzeko zentroetan (Osakidetzakoetan zein Sarearekin itundutako edo itundu gabeko zentro pribatuetan).

URGENTZIA ADIERAZLEAren bidez, honako datu hau biltzen da: 15-54 urte bitartekoen artean ospitaleko zenbat urgentzia-gertakari izan diren, betiere, gertakari horietan substantzia edo droga psikoaktiboen erabilera aipatu bada.

HILKORTASUN ADIERAZLEAK hauxe du helburutzat: gure erkidegoan 10-64 urte bitartekoengan substantzia psikoaktiboen kontsumo ez-mediko eta intentzionalaren ondoren kontrako erreakzio akutua dela-eta gertatutako urteko heriotza kopurua ezagutzea.

MATERIALA ETA METODOAK.

Informazioa biltzeko SEITek ezarri protokoloari jarraitzen zaio; 1996an eta 2003an aldatu zen protokolo hori. Datu-bilketa aldatu egiten da adierazlearen arabera.

TRATAMENDU ADIERAZLEAN datu-bilketa modu pasiboan egiten da. Zentroek erregimen ambulatorioan tratamendua onartzeko jakinarazpen-orriak Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzura bidaltzen dituzte; han, datuak egiaztatu eta akatsak zuzendu ondoren, prozesatu egiten dira, eta bikoiztuak ezabatu. Jakinarazpen-orri horietan honako datu hauek biltzen dira: alde batetik, datu sozio-demografikoak (sexua, jaiotze-data eta probintzia, bizi den udalerria eta probintzia, nazionalitatea, heziketa-maila, lan-egoera, bizikidetzeta eta bizi izan den tokia); bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak (tratamendua onartzea eragiten duen droga nagusia —alkohola barne hartuta—, kontsumoaren maiztasuna onarpenaren aurreko 30 egunetan, kontsumoaren hasiera-urtea, aldez aurretik tratamenduren bat egin ote den, kontsumitzen diren bestelako drogak, hartzeko bidea eta egoera serologikoa GIBaren aurrean)¹; eta azkenik, erreferentzia-iturria.

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak zentro eta instituzioek 2007. urtean egindako jakinarazpenetatik atera dira; 1. eranskinean bildu ditugu eta, guztira, 39 zentrotako datuak dira, Osakidetzakoak nahiz pribatuak. Alkoholaren eraginez tratamendua hasteari dagokion deskripzioa bereizita egingo dugu.

URGENTZIA ADIERAZLEAN, substantzia psikoaktiboen kontsumoaren aipamena egiten duten urgentzia-gertakarien bilaketa aktiboa egiten da. Bilaketa hori erregistro horretarako EAEn Bizkaiko Lurralde Historikotik erreferentziatzat hartu diren ospitaleetan (Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleak) egiten da, 15-54 urte bitartekoen artean. OED behatokiarekiko koordinazioak, bestalde, gertakari horiek hilabete bakoitzeko zein astetan bilduko diren ezartzen du. Substantzia psikoaktibo guztiak barne hartzen dira, tabakoa eta alkohola izan ezik, bestelako substantzia psikoaktiboen² kontsumoarekin erlazionatuta egon ezean.

HILKORTASUN ADIERAZLEA, 1996. urteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizial guztietan biltzen da, SEIT³ protokoloaren arabera. 2001. urtetik aurrera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) martxan jarri zenetik, heriotzen jakinarazpenak institutu horrek Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zuzendariordetzetako auzitegiko medikuen bitartez egiten dira, substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuak eragindako heriotzaren auzitegiko diagnostikoa ezarri ondoren.

Tasen kalkulua egiteko erabili den biztanleriari buruzko informazioa EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística) eman du.

Analisia deskriptiboa da hiru adierazleen kasuan, eta EAEko urgentzia kopurua kalkulatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan lortutakoak hartzen dira abiapuntu eta biztanleriaren banaketa proportzionala egiten da.

EMAITZAK

TRATAMENDU ADIERAZLEA

2007. urtean, guztira, tratamendurako 2.654 onarpen jakinarazi ziren. Horietatik, % 14 Arabako zentroetan, % 23 Gipuzkoako zentroetan eta kopururik handiena Bizkaikoetan (onarpenen % 63). Guztira hartuta, 2.588 onarpen EAEn bizi zirenen artean gertatu ziren. Gehienak (2.317, hau da, % 87,3) Espainian jaiotakoak izan ziren, ondoren Marokon (77), Kolonbian (33), Aljerian (27) eta Portugalen (21) jaiotakoak daude, beste jatorrizko herrialde batzuez gain.

1. grafikoan, tratamendurako onarpenen banaketa ikus daiteke, tratamendua eragiten duen drogaren arabera. Ikus daitekeenez, alkohola da tratamendu-hasiera gehien eragiten duena (983); bigarren postuan kokaina dago (826 onarpen) eta hirugarrenean heroina (435 onarpen).

1. taulan ikus daitezke zeintzuk diren tratamendurako onartu dituzten pertsonen ezaugarriak, tratamendua eragin duen drogaren arabera banatuta. Hori horrela izanik, ikus daiteke ezaugarri sozio-demografikoak eta kontsumo-ezaugarriak aldatu egiten direla drogaren arabera; gizonen kopururik handiena kannabisaren eta kokainaren kasuan atzeman da. Gazteenak kannabisa eta anfetaminak kontsumitzeagatik (batez besteko adina 26,3 eta 29,7, hurrenez hurren) onartzen dituzte tratamendurako, eta zaharrenak, aldiz, alkohola (batez besteko adina 45,6 urte) eta heroina (37,5 urte) kontsumitzeagatik. Ikasketa-mailari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, heroinaren kontsumoagatiko tratamendua hasten dutenek dute maila txikiena. Ikasketa-maila handiena dutenak, berriz, alkohola kontsumitzeagatik onartzen dira, baita anfetaminak ere.

Lan-egoera kontuan izanik, aktibo dauden pertsonen —hau da, lan-harreman mugagabea edo aldi baterakoa izanik ere, lan ona dutenen— ehuneko handienak kokainaren eta anfetaminen kontsumoa dela-eta hasten du tratamendua. Kannabisa kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen % 21,6 ikasleak dira. Kasuen guztirakoari erreparatuta, tratamenduan hasten direnen % 36,6 langabezian daudela nabarmendu

behar da, eta % 8,2 ezintasun iraunkorraren egoeran daude edo pentsiodunak dira.

Kasu gehienetan, tratamendurako onartutako gehienak etxeetan, etxebizitzetan edo apartamentuetan bizi dira (% 85,2). Bizikidetzari dagokionez, eredu aldatu egiten da droga nagusiaren arabera. Izan ere, alkoholaren kasuan, kasu gehienak bikotekide eta seme-alabekin bizi dira; anfetamina, kokaina edo kannabisaren kasuan, aldiz, gurasoekin. Heroinaren kasuan, bizikidetzaren eredu askotarikoa da. Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola edo noren bidez iritsi den tratamendu-zentrora, alkoholaren edo kannabisaren kasuan lehen mailako arretaren zerbitzua da nagusi. Alabaina, heroina, anfetaminak eta kokainaren kasuan, sarriago jotzen dute zentrora beren kabuz. Kannabisaren kasuan, % 16,3 lege-zerbitzuetatik edo polizia-zerbitzuetatik bideratuta dator.

Aurretiaz tratamendurik egin izanak edo egin ez izanak ere aldeak eragiten ditu. Horiek horrela, ikus daiteke heroina, heroina + kokaina eta hipnolasaigarriak kontsumitzeagatiko tratamendu-hasieretan gehienak berriz hasteak direla. Kannabisaren kasuan, hamar kasutatik bik baino ez zuten tratamendua jaso aldeaz aurretik.

Horretaz gain, 2007. urtean heroina, kannabisa eta alkohola kontsumitzen zuten gaixoez egunero kontsumitzen zutela sumatu dugu. Dena den, anfetaminen edo kokainaren kasuan, eguneroko kontsumoa edo asteburuko kontsumoa gertatzen da, antzeko proportzioan. Kontsumo-eredu hori aurreko urteetakoaren antzekoa da.

Droga nagusia kontsumitzen daramaten urte kopuruari dagokionez, onarpena eragin duen drogaren arabera aldeak atzeman daitezke. Alkohola edo heroina kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen kasuan, kontsumo-historia luzea izaten dute atzean. Gainerako drogetan, denetik ikus daiteke.

Droga hartzeko bideari erreparatuta, heroinaren kasuan injekzio bidez hartzen dutenak guztirakoaren ehuneko 31,9 dira. Kokainaren eta anfetaminen kasuan, gehienek sudur barnetik hartzen dute.

2. taulan, 1994. urtetik 2007. urtera bitarte, toxikomaniak direla-eta tratamendu-hasieren kopuruaren bilakaera ikus daiteke, tratamendua eragiten duen droga nagusiaren arabera —alkohola kanpoan utzita—. Ez dugu ahaztu behar 1995 arte heroinak edo kokainak eragindako onarpenak baino ez zirela erregistratzen. 1996. urtean onarpen kopuru handiena erregistratu zen, eta ikus daitekeenez, harrezkero, kopuru osoa pixkanaka jaitsi egin zen 2000. urtera arte; heroinak eragindako onarpenen jaitsieraren parekoa izan zen. Baina 2001etik aurrera, guztirako zenbatekoak berriro gora egin du, batez ere, kokaina eta kannabisaren kontsumoagatik tratamendurako onarpen-jakinazpenak gehitu direlako. 2005. urteaz geroztik, 2006an eta 2007an ere jarraitzen duen jaitsiera gertatzen ari da, kokainak eragindako onarpen-kopurua arian-arian behera ari den bitartean, baina kannabis-kontsumoak eragindako onarpenak etengabe hazten ari dira 2001. urtetik.

Azterketa hori egiteko, droga nagusizat identifikatutakoa hartu da abiapuntu, baina aipatu behar da tratamenduan hasten den pertsona bakoitzak droga nagusiaz gain beste droga batzuk ere kontsumi ditzakeela; beste droga horiek honela jakinarazten dira: “tratamenduaren onarpena egin aurreko azken egunetan kontsumitutako bestelako drogak”. 2007an, tratamendua hasi zutenen % 52,4k, gutxi gorabehera, gutxienez beste droga bat kontsumitzen zuen eta % 23,9k, gutxienez, beste bi droga; % 8,6k gutxienez beste hiru droga gehiago ere kontsumitzen zituen. (Datu horiek ez dira taulan agertzen).

2. grafikoan droga nagusiak direla-eta hasitako tratamenduen bilakaera ikus daiteke, alkohola alde batera utzita. Gainera, grafiko horretan zera ikus daiteke: alde batetik, 2003. urtetik aurrera EAEn tratamendu gehiago hasten dira kokainak eraginda, heroinak eraginda baino; eta bestetik, 2006tik aurrera kokainak zertxobait behera egiten du. 1996. urtean hasita, heroinaren jaitsiera etengabea da. **3. eta 4. grafikoetan**, Espainia osoan 2005. urtera bitarteko bilakaera zein izan den ikus daiteke. Grafiko horietan, eta EAerako gorago adierazitakoari jarraiki, heroinak eragindako tratamenduen jaitsiera progresiboa gertatu dela ikus daiteke, baina kokainaren kasuan igoera gertatu da.

3. taulan, alkohol-kontsumoagatik tratamendua hasten duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak zehatzago deskribatzen dira.

Taula horretan ikus daitekeenez, batez besteko adina 45,5 urte ingurukoa izaten da gizonezkoen kasuan, eta 46,0 emakumezkoen kasuan, nahiz eta kontsumoaren hasieran batez besteko adina —2006an bezalaxe— txikiagoa den 20 urterekin edaten hasten diren gizonezkoen kasuan, emakumezkoak ia 26 urterekin hasten baitira. Bizkaiko zentroetan metatzen da alkoholaren eraginez tratamenduan hasten direnen kopuru handiena. Ikasketa-mailari dagokionez, alkohola kontsumitzeagatik tratamendurako onartzen diren lau pertsonatatik batek bigarren hezkuntzako edo goragoko mailako ikasketak amaituak ditu, eta oro har, ez dago alderik emakumezkoen eta gizonezkoen artean. Lan-egoerari erreparatuta, aldakortasun handia dago; lanean ari diren gizonak emakumeak baino gehiago dira, eta emakumeen % 20k etxeko lanetan soilik egiten du lan.

Jaioterria kontuan izanik, gehienak Espainian jaiotakoak izan arren (% 89), % 3,5 Afrikan jaio ziren, % 3,5 Amerikan (horien artean, emakume gehienak Kolonbian eta Brasilen), eta gainerakoak Europako beste herrialdeetan.

Bizikidetzari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean eredia antzekoa da, seme-alabekin bakarrik bizi direnen kasuan izan ezik: emakumeak % 12,5 dira eta gizonak % 3.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola edo noren bidez iritsi den tratamendu-zentrora, alkoholaren kasuan lehen mailako arretaren zerbitzua da nagusi, gizon nahiz emakumeetan.

Emakumeen % 56k ez du aurretiazko tratamendurik jaso eta gizonen kasuan ehunekoa txikiagoa da: alkohola kontsumitzeagatik aurretiazko tratamendurik jaso ez duten gizonen ehunekoa 52,1 da.

Kontsumo-maiztasunari gagozkiola, gizonek eta emakumeek egunero kontsumitzen dute, kasu gehienetan.

Tratamenduan hasi aurretik alkohola kontsumitzen daramaten denborari dagokionez, ez dugu ahaztu behar datu edo balio hori kasu askotan ezezaguna izaten dela, baina balio ezezagun horiek alde batera utzita,

alkohola kontsumitzen denbora luzea daramate gizonek nahiz emakumeek: hamarretik ia zortzik hamar urte baino gehiago.

5. grafikoan, 1998. urtetik alkohola dela-eta tratamendu-hastapenen bilakaera ageri da, sexuaren arabera eta 2002. urtean onarpen kopuru handiena izan dela atzeman dugu.

URGENTZIA ADIERAZLEA

2007. urtean, EAEko erreferentzia-ospitaleetan (Bizkaia) substantzia psikoaktiboan erabilera aipatzen zuten 332 urgentzia-gertakari erregistratu ziren OED behatokiaren koordinaziotik finkatutako 12 asteetan.

Laginarekin 12 asteetan erregistratutako urgentziak direla kontuan hartuta, erreferentziako hiru ospitaletan 2007. urtean, guztira, 1.442 urgentzia kalkula litezke. **4. taulan** gaixoen ezaugarriak deskribatu dira.

Gertakarien % 52 Basurtuko ospitalean erregistratu ziren. Kasuen % 62 gizonetzkoak izan ziren, eta batez besteko adina 33 urte izan zen, bai gizonetan, bai emakumeetan. Erregistratutako hamar urgentzia-gertakarietatik zazpitan, urgentziaren diagnostikoa drogen kontsumoarekin loturik dago, zuzenean. Kasu gehienei alta eman zitzaizkien. Guztira 455 diagnostiko egin ziren, eta horrek esan nahi du urgentzia-gertakari bakoitzean batez beste 1,5 diagnostiko egin zirela.

Oro har, 2007ko urgentziazko gertakarien ezaugarriak aurreko urtekoen antzekoak dira.

ANALISIA, DROGAK BANAN-BANAN IKUSITA

5. taulatik 10.era bitarte, honako hauek aipatzen dituzten kasuetan urgentziaren diagnostiko guztien banaketa erakusten da: heroina, kokaina, anfetaminak, speeda, kannabisa eta hipnotikoak, eta lasaigarriak. Ez da alkohola deskribatzen, urgentzia-gertakarian alkohola bakarrik aipatzen bada, ez delako kasu gisa jasotzen.

Heroinaren kontsumoa aipatzen duten urgentzia-gertakarien kasuan (**5. taula**), kasu gehienetan urgentzia-diagnostikotzat hartzen dira drogekin lotura zuzena dutenak (F10etik F19ra).

Kokainaren kontsumoa aipatzen den kasuan, kasuen erdia baino zertxobait gehiagotan (% 53,9), urgentziaren eragilezat aipatzen diren diagnostikoek droga-kontsumoarekin zerikusia dute, kokaina eta beste batzuk ere barnean hartuta; esate baterako, alkohola, ia proportzio berean ageri baita. Era berean, buru-nahasmenduak ere kontuan izan behar dira, eskizofreniatik hasi eta portaera-nahasmenduekin bukatu, eta herostura edo antsietate-nahasmenduak nabarmenduta (% 7,8). Ehuneko garrantzitsua ikus daiteke,

halaber, honako hauekin loturiko diagnostikoek: takikardiarekin, palpitzioekin eta bularreko minekin (bihotzaurreko minak eta bestelakoak) (% 12,08) **(6. taula)**.

Anfetamina-kontsumoa aipatu duten gertakariei dagokienez **(7. taula)**, diagnostiko gehienak droga-kontsumoarekin loturik daude, baina lau diagnostikotik batean bestelako buru-nahasmenduak ere aipatzen dira, hala nola, antsietatea.

Kannabisaren kasuan **(9. taula)** zuzenean droga-kontsumoarekin zerikusia duten diagnostikoak % 46,5 baino ez dira, eta horietatik % 30 bestelako buru-nahasmendu eta guzti.

Erregistratutako diagnostiko gehienetan hipnotiko eta lasaigarrien kontsumoa aipatzen denean **(10. taula)**, substantzia psikoaktiboek kontsumoarekin loturik daude, baita buru-nahasmenduen taldearen barruko (F00-F99) beste diagnostikoekin ere. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea saio autolitikoek diagnostikoen % 17 osatzen dutela.

Urgentzia-gertakarietan sarrien aipatu ziren substantziei dagokienez, **11. taulan** deskribatzen denaren arabera, kokainak lehenengo tokia hartzen du, eta atzetik hipnolasaigarriak eta alkohola ditu, antzeko proportzioan.

12. taulan, diagnostikoa droga-kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta zegoen urgentzia-gertakarietan kontsumitutzat aipatzen diren substantzien banaketa ageri da. Kasu honetan, hipnolasaigarriak lehenengo postuan daude; eta ondoren, alkohola eta kokaina datoz.

HILKORTASUN ADIERAZLEA

2007. urtean substantzia psikoaktiboekiko kontrako erreakzio akutuak eragindako 45 hildako erregistratu ziren; hau da, aurreko urtean baino 5 gutxiago. % 56 Bizkaian, % 31 Gipuzkoan eta % 13 Araban hil ziren. Horiek guztiak EAEn bizi ziren.

13. taulan hildakoen informazio klinikoa eta datu sozio-demografikoak deskribatzen dira. Horrela, ikus daiteke hildakoen % 80 gizonezkoak zirela eta haien batez besteko adina 39,8 urtekoa izan zela gizonen kasuan; emakumeen batez besteko adina 38,8 izan zen.

Heriotza gehienak etxean (% 56) edo kalean (% 18) gertatu ziren, eta hamar kasutik hirutan nork bere buruaz beste egin izanaren ebidentziak aurkitu ziren. GIBaren aurrean egoera serologikorako balio ezezagunen proportzioa oso handia da.

14. taulan, hildakoen analisi toxikologikoetan aurkitutako substantziak deskribatzen dira; sarrien aurkitu den substantzia kokaina izan da, eta ondoren heroina. Hildako bakoitzean, batez beste, 2,9 substantzia psikoaktibo aurkitu dira.

Drogekiko kontrako erreakzio akutuak eragindako heriotza-tasa 2,89 izan da, 100.000 biztanle bakoitzeko, bi sexuetan; Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa (EET), berriz, 100.000 biztanleko 2,44 izan zen (KT % 95 1,73-3,15).

Gizonezkoen kasuan, EET delakoa 100.000 biztanle bakoitzeko 3,86 izan zen (KT % 95 2,60-5,13) eta emakumeen kasuan txikiagoa, 100.000 biztanle bakoitzeko 0,99 (KT % 95 0,34 - 1,64).

6. grafikoan, azken 10 urteetan substantzia psikoaktiboekiko kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren bilakaera ikus daiteke. Horren arabera, 2003. urtera arte gizonezkoen zein emakumezkoen heriotza-tasan beharrezko joera sumatzen zen arren, 2004. urtetik aurrera igoera gertatu zen; 2005ean igoerari eutsi zitzaion baina 2006an berriro jaitsiera izan zen, 2007an ere jarraitu zuela, baina gizonen kasuan soilik (emakumeen kasuan zertxobait gora egin du berriro ere).

15. taulan, 1997. urteaz geroztik substantzia psikoaktiboekiko kontrako erreakzioek eragindako hilkortasunaren bilakaera zehatz-mehatz deskribatu da; **7. grafikoan** hildakoen batez besteko adinaren bilakaera ageri da, eta ikus daiteke adinak gora egin duela 10 urteetan: 1997an batez besteko adina 30 eta 31 urtekoa izan zen gizonezko eta emakumezkoentzat, hurrenez hurren eta 2007. urtean, aldiz, 40 eta 39 urte, hurrenez hurren.

IRUZKINAK

Zeharkako hiru adierazle horiei buruzko datuak deskribatuta, EAEn droga-kontsumoarekin loturiko arazoan ikuspegi orokor eta hurbila izango dugu, arazo beraren alderdi ezberdinak erakusten baitizkigu.

Tratamendu-adierazleari dagokionez, 2005ean jakinerazpenen kopuruan beheranzko joera hasi zen eta 2007an joera horri eutsi egin zaio, guztira 2006an baino 41 onarpen gutxiago jakinarazi baitziren. Espainian ere jakinarazpenen kopuruak behera egin du⁴, eta joera hori datozen urteotan finkatzen den ala ez azertu beharko da.

Aurreko txostenetan jasotzen denez⁵, heroinagatiko tratamenduaren onarpen kopuruan beherakada jarraitua sumatzen da oraindik ere eta badirudi kokainagatiko onarpenen jaitsiera egonkortzen ari dela. Europako datuei dagokionez⁶, hegoaldeko eta mendebaldeko herrialde askotan kokaina da gehien kontsumitzen den estimulatzailea eta kokaina-kontsumoa handitzen ari da, gainera. Heroina-kontsumoari erreparatuta, Europako datuen arabera, arazoa egonkortzen ari da baina beheranzko joera eten egin dela aipatu behar da.

Gainera, kannabisa kontsumitzeagatiko tratamendurako onarpenen goranzko joera oraindik ere sumatzen da, leun bainoa etengabe, eta toxikomania ez-alkoholikoengatiko tratamendu-hasieren % 12,4 osatzen dute. Ehuneko hori bat dator Espainia osoan⁴ 2005eko guztirako onarpenei buruzko informazioarekin, tratamendurako hasieren % 11 baitira. Europan⁶, tratamendu-eskaeren % 21 osatzen du, eta heroinaren atzetik bigarren postuan dago. EAEn, kannabisaren kontsumoagatik tratamendua hasten dutenetatik % 20 baino gehiago ikasleak dira, eta gazteenak izaten dira halaber, Europan⁶ gertatzen den bezala. Azpimarratu behar da, bestalde, zeintzuk diren kannabisaren kontsumoak dakartzan ondorio negatiboak: eskola-porrota, desegituratze pertsonala eta soziala, eta lanarekin eta osasunarekin loturiko arazoak. Badirudi, neurriak ezarri diren arren, ez dela lortu kontsumo horren arriskuaren eta eragiten dituen ondorio larrien pertzepzioa gehitzea⁷.

2006an alkohola dela-eta tratamendu-hasierak zehatzago aztertzeari ekin zitzaion, errealitate hori bereizita aztertzeko modukoa baita. Gizartean onartuago dagoen arren, jende gehienarengan eragiten duen kontsumoa da eta, gainera, droga bat baino gehiago aldi berean kontsumitzen dituzten (politoxikomanoak) eta tratamendurako onartutako gaixoen kopuru garrantzitsu batean ageri da. Nabarmendu behar da alkoholaren eraginez tratamenduan hasten direnen ia erdiak beste tratamenduren bat hasia zuela lehenago arazo berarengatik.

Tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan droga nagusiaren kontsumo-maiztasunari buruzko datuak interpretatzeko garaian, ez dugu ahaztu behar tratamenduan hasi aurreko aldi hori atipikoa izan daitekeela eta agian ez dela gaixoaren ohiko kontsumo-maiztasunaren adierazgarri egokiena izango, zeren baliteke gaixoa kontsumo-ohiturak aldatzen hasi izana, bere kabuz edo bestek aginduta.

Urgentzia Adierazleari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko ospitaleetako lagin bat hartzen denez hilabete bakoitzeko aste jakin batean (ausaz aukeratzen da astea), adierazle hori ez da EAE osoaren adierazgarri, baina Tratamendu eta Hilkortasun Adierazleek ematen diguten informazioa osatzeko baliagarri izan daiteke.

Drogak aipatzen diren urgentzia-gertakari gehienetan, droga horiek kokaina, hipnolasaigarriak eta alkohola izaten dira. Diagnostikoa kontsumoarekin zuzenean loturik dagoen urgentzietan, hipnotikoek ehunekorik handienak lortzen dituzte, aurreko urteetan bezalaxe, eta gehienak benzodiazepinen taldekoak dira. Datu hori azpimarratzeko modukoa da; izan ere, droga "ilegalekin" ez bezala, errezeta behar izaten baita hipnotikoak eskuratzeko. Substantzia psikoaktiboen kontsumoarekin loturiko urgentzietan, pertsona bakoitzak baieztatu zuen batez beste bi droga hartu zituela. Era berean, garrantzitsua da adieraztea alkohola erregistratzen dela beste droga batzuekin batera agertzen baldin bada; beraz, alkoholaren kontsumoa bakarrik aipatzen duten urgentziak ez dira kontuan hartzen erregistro hau betetzeko. Hala eta guztiz ere, sarrien aipatzen den droga da.

Aurreko urteetan, drogen kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren jaitsiera mailakatua ikus zitekeen EAEko Hilkortasun Adierazlean, eta tasarik txikiena 2004. urtean izan zen. 2005ean, Espainia osoan⁴ gertatutakoari jarraiki, tasak gora egin zuen baina ez dakigu zergatik; urte hartan, hildakoengan maizenik aurkitutako droga heroina izan zen. 2006an eta 2007an tasek berriz ere behera egin zuten, eta 2004. urtean bezala, bi urte horietan ere kokaina da gehien aurkitutako droga.


BIBLIOGRAFIA

1. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Admisiones a Tratamiento por Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
2. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Urgencias Hospitalarias Directamente Relacionadas con el Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
3. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Mortalidad por Reacción Adversa Aguda a Sustancias Psicoactivas. Madril, 2002.
4. Drogei buruzko Espainiako Behatokia. 2007ko txostena.
5. Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistemaren txostena. Euskal Autonomia Erkidegoa 2006. Lan-dokumentua http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52publ01/es/contenidos/informacion/factores_det_erm/es_5464/adjuntos/Informe%20Toxicomanías%202006.pdf .
6. Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia. 2007. Informe anual sobre el problema de la drogodependencia en la Unión Europea y en Noruega. Luxemburgo: Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2007.
7. Plan Nacional de Drogas. CANNABIS. Informe de la comisión clínica de la Delegación del Gobierno para el Plan Nacional de Drogas. Madril, 2006.

ESKER ONAK

Toxikomaniak tratatzeko zentroetako profesional guztiei eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko medikuei eskerrak eman nahi dizkiegu, datuak hain zehatz jaso eta bidaltzeagatik. Era berean, Basurtuko, Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaletako Dokumentazio Zerbitzuei ere mila esker, kasu-bilketa erraztu digutelako.


1. grafikoa. TRATAMENDU ADIERAZLEA.
Tratamendurako onarpenak, eragiten duen drogaren arabera.
EAE 2007



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

2. grafikoa. TRATAMENDU ADIERAZLEA.

Heroina, kokaina eta kannabisaren tratamendurako onarpen kopuruaren bilakaera.
EAE 1992-2007




Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

3. grafikoa. TRATAMENDU ADIERAZLEA.

Espanian heroinaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen kopuruaren bilakaera 1991-2005.

Kop.




— Lehenengo tratamenduak	15.277	20.017	18.977	18.770	17.878	16.647	12.993	11.867	10.473	8.151	7.461	5.051	4.337	3.836	3.604
- - Aurretiazko tratamenduarekin	13.296	15.956	16.703	17.526	20.369	28.382	30.173	30.756	26.031	26.412	24.844	21.162	17.867	15.617	14.005

Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu Adierazlea.


4. grafikoa. TRATAMENDU ADIERAZLEA.

Espanian kokainaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen kopuruaren bilakaera 1991-2005.



5. grafikoa. TRATAMENDU ADIERAZLEA.


Alkoholagatiko tratamendurako onarpen kopuruaren bilakaera, sexuaren arabera.
EAE 1998-2007.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

6. grafikoa. HILKORTASUN ADIERAZLEA.


Substantzia psikoaktiboekiko kontrako erreakzio akutuak eragindako heriotza-tasaren bilakera, sexuaren arabera. EAE 1998-2007



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

7. grafikoa. HILKORTASUN ADIERAZLEA.

Substantzia psikoaktiboekiko kontrako erreakzio akutuaren ondorioz hildakoen batez besteko adinaren bilakaera, sexuaren arabera. EAE 1996-2007



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

1. taula. TRATAMENDU ADIERAZLEA. Tratamendurako onartuak izan diren pertsonen ezaugarriak, onarpen hori eragin duen drogaren arabera. EAE 2007.

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Kannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
Kopurua guztira	435	140	826	11	208	983	15	36	2654	
Batez besteko adina (urteak)	(37,5)	(29,7)	(32,2)	(34,6)	(26,3)	(45,6)	(35,6)	(29,7)		
	%	%	%	%	%	%	%	%	K	%
Sexua										
Gizonak	80,5	75,7	86,1	72,7	88,5	79,7	86,7	77,8	2.183	82,3
Emakumeak	19,5	24,3	13,9	27,3	11,5	20,3	13,3	22,2	471	17,7
Adin taldea										
10-14	0	0	0	0	0,5	0	0	2,8	2	0,1
15-19	0	5	2,3	0	23,1	0,8	0	13,9	87	3,3
20-24	4,8	17,1	14,8	18,2	23,1	1,7	6,7	13,9	240	9
25-29	8,3	27,9	23,4	18,2	21,2	5	13,3	19,4	372	14
30-34	16,3	27,9	22,6	18,2	15,4	9,1	20	19,4	430	16,2
35-39	29	16,4	19	9,1	11,5	14,4	26,7	22,2	485	18,3
40-44	27,8	4,3	11,7	9,1	3,4	16,8	20	2,8	401	15,1
45-49	11,3	1,4	3,9	27,3	1,9	16,8	13,3	2,8	258	9,7
50-54	2,1	0	1,6	0	0	13,8	0	0	158	6
55-59	0,2	0	0,5	0	0	9,4	0	0	97	3,7
60 edo gehiago	0,2	0	0,1	0	0	12,1	0	2,8	123	4,7
Ikasketak										
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	2,1	0,7	1,2	9,1	0	1,1	6,7	2,8	34	1,3
Lehen Hezkuntza bukatu gabe	16,8	9,3	11,4	36,4	8,7	14,6	6,7	5,6	349	13,1
Lehen Hezkuntza bukatuta	31,7	22,9	27,4	9,1	27,4	31,7	26,7	22,2	778	29,3
Bigarren Hezkuntzaren 1. etapa, OHO, DBH, LH1 edo erdi-	32	42,1	37,3	18,2	41,3	27,6	40	47,2	888	33,5
Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa, LH2, BBB, UBI	10,8	16,4	16,8	9,1	12,5	17	6,7	16,7	410	15,4
Unibertsitateko erdi-mailako ikasketak	1,8	2,9	2,9	9,1	6,3	3,4	0	0	83	3,1
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	0,7	3,6	2,1	9,1	2,9	2,7	6,7	0	60	2,3
Beste batzuk	0	0	0,4	0	0	0,2	0	0	5	0,2
Ezezaguna	4,1	2,1	0,6	0	1	1,6	6,7	5,6	47	1,8
Lan-egoera										
Lan-harreman mugagabea edo autonomoa	20,9	33,6	37	9,1	21,2	35,8	0	25	850	32
Aldi baterako lan-harremana	11,3	13,6	14,3	9,1	17,8	10,3	6,7	13,9	331	12,5
Soldatarik gabe, familiarentzako lanean	0,7	0,7	1,2	0	1,4	2,2	0	0	39	1,5
Langabea, aurretik lanik egin gabea	5,1	3,6	3,9	45,5	7,7	2,5	13,3	5,6	109	4,1
Langabea, aurretik lana eginda habiendo trabajado antes	44,4	39,3	35,1	18,2	24	25,5	66,7	33,3	863	32,5
Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna	8	2,9	3	9,1	1,4	15,1		5,6	218	8,2
Ikasten edo oposizioak egiten	0,7	4,3	1,9	0	21,6	0,1	6,7	11,1	76	2,9
Soilik etxeko lanak egiten	0,9	0	0,6	0	0	4,1	0	0	49	1,8
Beste egoera batean	4,1	1,4	1,9	0	3,4	2,4	0	0	67	2,5
Ezezaguna	3,9	0,7	1	9,1	1,4	1,9	6,7	5,6	52	2
Bizitokia										
Etxeak, etxebizitzak, apartamentuak	75,2	86,4	89,8	72,7	87,5	85,8	66,7	75	2.260	85,2
Espetxea, adingabeentzako barneratze-zentroa edo erreforma-	11,3	2,1	3,5	0	5,3	1,5	6,7	11,1	112	4,2
Beste instituzio batzuk	2,1	2,1	1	9,1	2,4	2,2	0	2,8	49	1,8
Pentsioak, hotelak, hostalak	1,4	2,9	1,7	0	0	2,1	0	2,8	46	1,7
Bizitoki ezeگونkorra/prekarioa	5,1	3,6	1,7	0	2,4	3,6	6,7	0	82	3,1
Beste toki bat	3,4	2,9	1,5	18,2	1,9	3,1	20	0	70	2,6
Ezezaguna	1,6	0	0,8	0	0,5	1,7	0	8,3	35	1,3
Bizikidetza										
Bakarrik	23,4	12,9	13,9	36,4	12,5	22,4	53,3	13,9	498	18,8
Bikotekidearekin baino ez	14	8,6	15,3	0	5,3	14,2	6,7	8,3	354	13,3
Seme-alabekin baino ez	1,1	2,1	2,1	0	1,4	5,1	6,7	2,8	80	3
Bikotekidearekin eta seme-alabekin	9,7	8,6	16,2	0	8,2	29	0	13,9	495	18,7
Gurasoekin edo jatorrizko familiarekin	29,4	54,3	41	27,3	54,3	19,2	20	33,3	863	32,5
Lagunekin	6	5	3,5	9,1	6,7	1,9	0	5,6	98	3,7
Beste batzuk	13,6	7,9	6,8	27,3	10,1	5,4	13,3	16,7	211	8
Ezezaguna	2,8	0,7	1,2	0	1,4	2,7	0	5,6	55	2,1

1. taula (jarraipena)

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Kannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
	%	%	%	%	%	%	%	%	K	%
Erreferentzia										
Droga-mendekotasunen beste zerbitzu bat	18,9	6,4	7,9	9,1	2,9	2,4	33,3	8,3	195	7,3
Mediku orokorra, osas. lehen mailako atentzioa	15,6	24,3	23,1	27,3	24,5	43,2	6,7	11,1	777	29,3
Ospitalea edo bestelako osasun-zerbitzuak	8	12,9	6,2	9,1	9,1	17,5	20	2,8	300	11,3
Gizarte-zerbitzuak	3,9	5	4	9,1	6,3	6,3	13,3	5,6	137	5,2
Espetxea, adingabeentzako barneratze-zentroa edo erreforma-	12,9	1,4	4,5	9,1	3,4	1	0	8,3	116	4,4
Lege-zerbitzuak edo polizia-zerbitzuak	0,7	3,6	4	0	16,3	2,1	0	0	96	3,6
Enpresa edo enplegu-emailea	0,2		0,1	0	0	0,5	0	0	7	0,3
Senideak edo lagunak	7,1	15	18,2		17,3	8,1	6,7	19,4	326	12,3
Norberaren ekimenez	30,6	29,3	30,3	36,4	17,8	16,3	20	41,7	643	24,2
Beste bat	0,5	2,1	1,7	0	1,9	1,4	0	0	37	1,4
Ezezaguna	1,6	0	0,1	0	0,5	1	0	2,8	20	0,8
Aldez aurreko tratamendua										
Bai	80,5	42,9	44,9	63,6	17,8	44,7	60	38,9	1.287	48,5
Ez	11,7	56,4	52,8	36,4	79,3	52,9	26,7	41,7	1.274	48
Ezezaguna	7,8	0,7	2,3	0	2,9	2,4	13,3	19,4	93	3,5
Kontsumoaren maiztasuna										
Egunero	52,4	30	26,8	72,7	74	66,5	73,3	36,1	1.331	50,2
Asteaz 4-6 egun	6,9	10	12,3	0	7,7	5,7	0	8,3	221	8,3
Asteaz 2-3 egun	3,2	32,1	27,6	9,1	7,2	11,1	0	25	421	15,9
Asteaz egun 1	1,4	9,3	7,4	9,1	4,3	2,8	6,7	2,8	120	4,5
